

EBAZPENA, 2023KO URTARRILAREN 17KOA, OSALANeko ZUZENDARI NAGUSIAREN, OSALAN-LANeko SEGURTASUN ETA OSASUNERako EUSKAL ERAKUNDEAREN 2023. URTERAKO DIRULAGUNTZEN PLAN ESTRATEGIKOA ONARTZEN DUENA.

Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrak (DLO) 8. artikuluan xedatzen duenez, oinarriko legeria gisa, administrazio publikoetako organoek dirulaguntzen plan estrategiko bat egin behar dute, eta bertan zehaztuko dituzte plana aplikatzean lortu nahi diren helburuak eta ondorioak, baita horiek lortzeko epea, aurreikusten diren kostuak eta finantzaketa-iturriak ere, betiere aurrekontu-egonkortasunaren helburuak betez.

Plan hau OSALAN-LANeko SEGURTASUN ETA OSASUNERako EUSKAL ERAKUNDEA erakunde autonomoaren politika planifikatzeko tresna da, haren xedea baita onura publikoko edo interes sozialeko jarduera bat sustatzea edo helburu publiko bat lortzeko bultzada ematea, dirulaguntzen bidez.

Plan hau egiteko, lortu nahi diren interes publikoak aztertu dira, eta planaren indarraldian horretarako eskuragarri dauden baliabideekin alderatu dira. Horrela, eraginkortasun- eta efizientzia-mailak handituko direla bermatzen da, bai eta gure jarduera-eremuaren gardentasuna indartuko dela ere.

Ohartarazi behar da, nolana ere, planak izaera programatikoa duela, eta, beraz, haren edukiak ez duela ez eskubiderik ez betebeharririk sortzen. Planaren eraginkortasuna abiarazten diren dirulaguntza ildoan araberakoa izango da, eta, besteak beste, ekitaldi bakoitzeko aurrekontu-baliabideak hartuko dira kontuan.

Horregatik guztiagatik, eta Osalan-Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundearen egitura eta funtzionamenduaren Erregelamendua onartzen duen uztailaren 30eko 191/2002 Dekretuaren 17. artikulua ematen dizkidan eskumenez baliatuz, hau

EBAZTEN DUT

Lehenengoa.- Osalan-Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundearen 2023ko Dirulaguntzen Plan Estrategikoa onartzea.

Bigarrena.- Plana Osalan-Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundearen webgunean argitaratu beharko da, eta unean-unean antolamendu juridikoan

Osalan Zerbitzu Orokorrak | Servicios Centrales
Dinamita bidea, z/g. 48903 Barakaldo (Bizkaia)
Tlf: 94 403 21 90 www.osalan.euskadi.eus



informazioari eta gardentasunari buruz aurreikusitako beste edozein xedapen ere aplikatuko zaio.

Barakaldon, 2023 ko urtarrilaren 17an.

Izp: Lourdes Iscar Reina
Osalaneko zuzendari nagusia

OSALAN-LANEKO SEGURTASUN ETA OSASUNERAKO EUSKAL ERAKUNDEAREN DIRU-LAGUNTZEN PLAN ESTRATEGIKOA (DPE) 2023KO EKITALDIRAKOA

1. SARRERA

Diru-laguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorrak (aurrerantzean DLLO), zioen azalpenean oro har, eta zehazki 8. artikuluan, xedatzen du administrazio publikoetako organoek Dirulaguntzen Plan Estrategikoa (aurrerantzean DPE) egiteko betebeharra dutela. Plan horretan zehaztuko dituzte hura aplikatzean lortu nahi diren helburuak eta ondorioak, horiek lortzeko epea, aurreikusten diren kostuak eta finantzazio-iturriak. Bestalde, publikotasunaren, gardentasunaren, lehiaren, objektibotasunaren, berdintasunaren eta diskriminaziorik ezaren printzipioak bermatuko dituzte, eta orobat bermatuko dute helburuak eraginkorrak direla eta baliabide publikoak efizientziaz esleitu eta erabiltzen direla.

DLLOren 8. artikulua hori DLLOren Erregelamenduak garatu du eta uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuaren bidez onartua izan da, eta, lege beraren azken xedapenetatik bigarrenean eta Errege Dekretuaren azken xedapenetatik lehenean ezarritakoaren arabera, oinarritzko izaera du, aipatutako xedapen horietan zerrendatu diren aginduak izan ezik.

Estatuko araudi hori Euskal Autonomia Erkidegoko jardun-eremuan aplikatzeari buruz sortu den eztabaidari dagokionez, honako hau xedatzen da Administrazio Publiko eta Justizia Saileko Lege Garapen eta Arau Kontrolerako Zuzendaritzak duela gutxi egindako txosten baten kontsiderazio juridikoetan:

“17.- Bestalde, Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiak (aurrerantzean EAEAN) ez du ukatzen 38/2003 Legea Euskal Autonomia Erkidegoan aplikatu behar denik, baina Lege horren 8.1 artikuluan aipatzen den “diru-laguntzen plan estrategikoa” ez du ezinbesteko baldintzatzat jotzen du EAEko udalerrietako diru-laguntzen deialdiak baliozkoak izan daitezen (...)

(...) Alabaina, Auzitegi Gorenak (aurrerantzean AG) EAEANren epaiekin bat datozen hainbat epai eman ditu (besteak beste, 2012ko ekainaren 26ko eta abenduaren 4ko epaiak, eta 2013ko urtarrilaren 28ko eta apirilaren 16koak), eta, horietan, 38/2003 Legearen 8.1 artikuluari dagokionez, honako irizpide hau ezarri du: “Agindu horretatik, ahalegin dialektiko handirik egin behar izan gabe, bi ondorio hauek atera daitezke: Plan Estrategikoa edozein diru-laguntza ezarri aurrekoa da; eta agindua nahitaez betetzekoa eta kategorikoa da. Aginduan xedatzen da nahitaezkoa dela Plan Estrategikoa alde zurretik aurkeztea, eta, gure ustez, aginduaren idazketa ez da saihetzekoa eta ez-sistematikoa, instantziako epaiak dioen moduan; baizik eta diru-laguntza arautu aurretik bete beharreko funtsezko betekizuna. Beraz, beharrezkoa da, baiki, plana formalizatzea edo gauzatzea, eta, hori modu jakin batean egitea eskatu ezin bada ere, identifikatzeko moduko era batean zehaztu beharko da”. EAEANk jurisprudentzia hori aplikatu izan du, jada, geroagoko epaietan ere: besteak beste, 2012ko azaroaren 6ko epaian, eta 2014ko otsailaren 18ko, urriaren 29ko eta abenduaren 19koetan). Baina EAEko udalek egindako diru-laguntzen deialdiak dira horiek, eta beraz, ez dira sartzen Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko testu bateginaren 48. artikulua eta hurrengoak

aplikazio-eremuan. Epai horietan Administrazioarekiko Auzietarako Jurisdikzioari buruz esaten denaren arabera, 38/2003 Legea aplikagarri zaio EAEko Toki Administrazioari.

18.- EAEANK administrazio autonomikoaren diru-laguntzen deialdien aurka aurkeztutako errekurtsioak ebazteko ere aplikatu izan du 38/2003 Legea (besteak beste, EAEANren 2009ko irailaren 16ko epaia –AGren 2013ko abenduaren 23ko epaiak berretsia– eta 2014ko irailaren 16ko eta azaroaren 10ekoak); baina Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko testu bateginaren 48. artikuluan eta hurrengoetan bildutako autonomia-erkidegoko araudia ere aplikatzen du, bata edo bestea lehentasunez aplikatzeari buruzko inolako aipamenik egin gabe. Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburuaren 2013ko uztailaren 31ko Aginduaren (goi-mailako kirol-lehiaketak antolatzeako diru-laguntzetarako deialdia egiten eta deialdi hori arautzen duena) aurka Estatuko abokatuak aurkeztutako errekurtsioak eragin du auzia. EAEANren 2015eko urtarrilaren 21eko epaian AGk lehen aipatutako epaietan finkatutako doktrina (gogora dezagun, EAEko udalerriek egindako diru-laguntzen deialdiei buruzkoa) biltzen da, 38/2003 Legearen 8.1 artikulua nahitaez aplikatzeari dagokionez; eta honako hau gehitzen du: “Auzitegi Gorenaren adierazpenen irimotasunak ez du baliogabetzen 38/2003 Legearen Hogeita bigarren Xedapen Gehigarriaren edukia ... zeren... arauak ez baitu Euskal Autonomia Erkidegoa bere aplikazio-eremutik kanpo uzten; aitzitik, arauaren aplikazioa berresten du, eta, hura aplikatzean, Autonomia Estatutuaren eta Lurralde Historikoen araberrako antolamendu eta eskumenen esparruko berezitasunak errespetatu beharko dira. Gai horri dagokionez, sala honek ez daki EAEko autonomiaren zer alderdi izan den kaltetua, zer alderdi ez den errespetatu, diru-laguntza ezarri aurretik plan estrategikoa egiteko betebeharra ezarri denean, eta zaila izango da horretaz jabetzea, demandatuak berak onartzen baitu azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuan (Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko testu bategina onartzen duena) jasotzen diren printzipioak erabat pareka daitezkeela argudiotzat aipatu den Estatuaren arauan xedatutakoarekin”. Argudiaketa horretan oinarrituta, adierazten du inpugnatutako Agindua baliogabea dela, diru-laguntza onartu aurretik Plan Estrategikorik ez izateagatik ordenamendu juridikoarekin bat ez datorrelako”.

Besteak beste aurreko kontsiderazio juridikoak aintzat hartuta, txostenak ondorioztatzen du DLLO zuzenean aplikatu behar dela autonomia-erkidego honetan, xedatzen baitu *dirulaguntzen arloan «Estatuko oinarrizko araudia» (38/2003 Legearen azken xedapenetako lehenengoan «Estatuko oinarrizko legedia» esamoldea erabiltzen da, eta ez du bereizten Estatuak, bere eskumen eksklusiboak baliatuz, ematen duen arauditik), printzipioz, EAEn zuzenean aplikatzekoa dela. Araudi horretako aginduren bat ez aplikatzea gertatuko balitz, Euskal Autonomia Erkidegoko foru-erregimen berezia arautzen duen xedapenen batekin bateraezina dela argudiatu beharko litzateke, txosten honen gorputzean azaldutakoaren arabera.»*

Hori guztia dela-eta, Osalan-Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundeak Dirulaguntzen Plan Estrategiko (DPE) hau egin du, DLLOn xedatutakoa betez eta Kontrol Ekonomikoko Bulegoak Dirulaguntzen Plan Estrategikoak egiteari buruz emandako 2015eko irailaren 18ko 01/03 Zirkularriari jarraituz.

DPE kudeaketa-tresna programatikoa da, eta ez du arau-mailarik. Beraz, ez dakar ez eskubiderik ez betebeharririk balizko onuradunentzat. Plana eraginkorra izateko, dirulaguntza lerroak abiarazi beharko dira, betiere, eta besteak beste, aurrekontu-baliabideak aintzat hartuta.

Era berean, Plana sustatu duen sailak egindako jarraipen-txostenen eta Kontrol Ekonomikoko Bulegoak egindako txostenen arabera, dirulaguntza lerro batzuk aurreikusitako helburuen lorpen-mailara edota inbertitutako baliabideen araberrako lorpen-mailara iristen ez badira, aldatu eta horien ordean eraginkorrak edo efizienteagoak diren beste batzuk ezarriko dira, edo, hala badagokio, kendu.

2. ERAKUNDE- ETA DENBORA-EREMUA

DPE honek biltzen ditu Osalan-Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundeak kudeatzen dituen dirulaguntzak, Osalan-Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundearen egitura eta funtzionamenduaren erregelamendua onartu zuen uztailearen 30eko 191/2002 Dekretuak erakunde horri esleitzen dizkion eskumenak eta funtzioak betez.

Denbora-eremuari dagokionez, Diru-laguntzei buruzko Lege Orokorraren (DLLO) Erregelamenduaren 11.4 artikuluari jarraituz, DPEk hiru urteko indarraldirako aurreikuspenak jasoko ditu, non eta, eraginpeko sektorearen izaera berezia dela medio, beste iraunaldi bateko plan estrategiko bat ezartzea komeni ez den. Alde horretatik, eta gorabehera berezirik antzeman ez denez, Plan Estrategikoa 2023-2025 aldian egongo da indarrean.

3. ARDATZ ESTRATEGIKOAK ETA DIRU-LAGUNTZA LERROAK

OSALAN- LANEKO SEGURTASUN ETA OSASUNERAKO EUSKAL ERAKUNDEA							
SUBDIRECCIÓN/ SUBPROGRAMA	OBJETIVO ESTRATÉGICO	LÍNEA DE SUBVENCIÓN	2023	2024	2025	TOTAL	
ZUZENDARITZA NAGUSIA	31130	Laneko segurtasunaren eta osasunaren arloan diharduten eragileen parte-hartzea eta haien arteko lankidetzak	<i>EAE n legez osatutako enpresa Elkarteen finantzazioa, OSALANen Kontseilu eta Batzordeetan benetako parte hartzeagatik ordezkari handieneko erakundetzat jotzen direnak hain justu, martxoaren 24ko 1/ 1995 Errege Dekretu Legegilearen 6. Xedapen Gehigarriaren arabera</i>	229.083€	229.083€	229.083€	687.249€
	31130	Laneko segurtasunaren eta osasunaren arloan diharduten eragileen parte-hartzea eta haien arteko lankidetzak	<i>Erakunde sindikalen finantzazioa, OSALAN-Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundearen Kontseilu eta Batzordeetan ordezkari handiena daukatenen hautes-ordezkariaren hautes-ordezkariaren duten benetako partaidetzaren arabera</i>	324.776€	324.776€	324.776€	974.328€
	31130	Laneko segurtasunaren eta osasunaren arloan diharduten eragileen parte-hartzea eta haien arteko lankidetzak	<i>Euskadiko Kooperatiben Konfederazioaren dirulaguntza, OSALANen-Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundea Kontseilu eta Batzordeetan duten benetako partaidetzaren arabera</i>	54.128€	54.128€	54.128€	162.384€
	31130	Laneko segurtasunaren eta osasunaren arloan diharduten eragileen parte-hartzea eta haien arteko lankidetzak	<i>Laneko Segurtasun eta Osasunerako Europako Agentziari</i>	40.000€	40.000€	40.000€	120.000€

	31130	Laneko arriskuen prebentzioaren aldeko kultura sustatzea	<i>ESMko kideentzako dirulaguntza ETEetan Prebentzio-kulturari dagokionez euskal behatokiko jarraipen-batzordean onartutako ekintzen arabera</i>	250.000€	250.000€	250.000€	750.000€
	31130	Laneko arriskuen prebentzioaren aldeko kultura sustatzea	<i>Laneko arriskuen prebentzioa enpresaren kudeaketa-sisteman integratzeko jardunbide egokien saria</i>	0€			0€
PLANGINTZAKO ZUZENDARI ORDETZA	31130	Laneko Segurtasun eta Osasunari buruzko jakintza sortu eta zabaltzea	<i>LAP arloko ikerketa-proiektuak</i>	150.000€	150.000€	150.000€	450.000€
	31130	Laneko Segurtasun eta Osasunari buruzko jakintza sortu eta zabaltzea	<i>SEA-Arabako Enpresak Osasuna sustatzeko Programarako dirulaguntza</i>	30.000€	30.000€	30.000€	90.000€
	31130	Laneko Segurtasun eta Osasunari buruzko jakintza sortu eta zabaltzea	<i>EHUrentzako diru-laguntza laneko medikuntzako katedra sortzeko</i>	40.000€	40.000€	40.000€	120.000€
	31130	Laneko Segurtasun eta Osasunari buruzko jakintza sortu eta zabaltzea	<i>APD elkarteari dirulaguntza ematea, laneko segurtasun eta osasunari buruz sentikortzeko eta ezagutza sortzeko jardunaldiak egin ditzan</i>	15.000€	15.000€	15.000€	45.000€
ZUZENDARI ORDETZA TEKNIKOA	31130	Laneko Segurtasun eta Osasunari buruzko jakintza sortu eta zabaltzea	<i>EHU/UPV-ri. Laneko arriskuen prebentzioari buruzko masterra</i>	13.000€	13.000€	13.000€	39.000€

	31130	Laneko arriskuen prebentzioaren aldeko kultura sustatzea	<i>AZTI fundazioari dirulaguntza. Janariaren eta egurraren balio-kateen Laneko Segurtasun eta Osasun arloko estrategia bultzatzeko eta garatzeko</i>	78.000€	78.000€	78.000€	234.000€
	31130	Laneko Segurtasun eta Osasunari buruzko jakintza sortu eta zabaltzea	<i>Prebentzioko ordezkarien prestakuntza</i>	300.000€	300.000€	300.000€	900.000€
	31130	Laneko arriskuen prebentzioaren aldeko kultura sustatzea	<i>Siderurgia Integraleko Langileen Fundazioari, Hezkuntzan LAP arloko Prestakuntza sustatzeko (ADI proiektua)</i>	20.000€	20.000€	20.000€	60.000€
	31130	Laneko Segurtasun eta Osasunari buruzko jakintza sortu eta zabaltzea	<i>Prestakuntza eta dibulgaziorako dirulaguntzak (Autonomoak)</i>	40.000€	40.000€	40.000€	120.000€

I. ERANSKINA: ARDATZ ESTRATEGIKOAK ETA DIRULAGUNTZA LERROAK: Helburuak, ekintzak eta adierazleak

1. helburu estrategikoa: Laneko Segurtasun eta Osasunari buruzko jakintza sortu eta zabaltzea			
1. dirulaguntza lerroa: Prebentzioko ordezkarien prestakuntza			
1. organoa: Zuzendariordetza Teknikoa			
1. programa: Prebentzioko ordezkarien oinarrizko prestakuntza emateko dirulaguntza	2023	2024	2025
1. helburua: Eragileei laneko arriskuak prebenitzeko eta lanean osasuna sustatzeko behar dituzten ezagutzak eta ahalmena ematea			
1. ekintza: Arauen arloko prestakuntza-ekintzak diruz laguntzea			
1. adierazlea: Gauzatutako ekintzen kopurua	60	60	60
2. adierazlea: Ekintzan parte hartzen duten pertsonen kopurua	900	900	900
2. ekintza: Arlo teknikoko prestakuntza-ekintzak diruz laguntzea			
1. adierazlea: Gauzatutako ekintzen kopurua	60	60	60
2. adierazlea: Ekintzan parte hartzen duten pertsonen kopurua	800	800	800
2. dirulaguntza lerroa: LAP arloko ikerketa-proiektuak			
1. organoa: Plangintza Zuzendariordetza			
1. programa: LAP arloko ikerketa-proiektuetarako dirulaguntza	2023	2024	2025
1. helburua: LAP arloko ikerketa sustatzea eta emaitzak zabaltzea			
1. ekintza: LAP arloko ikerketa-proiektu berritzaileak diruz laguntzea			
1. adierazlea: Diruz lagundutako proiektuen kopurua	5	5	5
2. ekintza: Emaitzen zabalkundea			

1. adierazlea: Beste enpresa batzuetan aplikagarriak izan daitezkeen diruz lagundutako proiektuen kopurua	5	5	5
2. adierazlea: Osalanen webgunean argitaratutako proiektuetara izan diren bisiten kopurua	500	500	500
3. diru-laguntza lerroa: UPV/EHUri. Laneko arriskuen prebentzioari buruzko masterra			
1. organoa: Zuzendariordetza Teknikoa			
1. programa: UPV/EHUren LAP arloko masterrean kanpoko irakasleen eskutik prestakuntza jasotzeko dirulaguntza	2023	2024	2025
1. helburua: LAP arloko etorkizuneko profesionalen prestakuntza praktikoa			
1. ekintza: UPV/EHUren LAP arloko masterrean kanpoko irakasleen eskutik jasotako prestakuntza diruz laguntzea			
1. adierazlea: Osalaneko teknikariek emandako irakaskuntza-orduak	65	65	65
2. adierazlea: Genero-ikuspegia duten irakaskuntza-orduak	4	4	4
2. organoa: Plangintza Zuzendariordetza			
1. programa: UPV/EHUrentzako diru-laguntza laneko medikuntzako katedra sortzeko	2023	2024	2025
1. helburua: Lan-medikuntzaren espezialitatea sustatzea EHU			
1. ekintza: EHU lan-medikuntzako katedra sortzeko diru-laguntzak ematea			
4. dirulaguntza lerroa: SEA-Arabako Enpresak elkarteari Osasuna sustatzeko Programarako dirulaguntza			
1. organoa: Plangintza Zuzendariordetza			

1. programa: Osasuna sustatzeko programarako dirulaguntza	2023	2024	2025
1. helburua: Osasunaren sustapena			
1. ekintza: Arabako enpresetan osasuna sustatzeko ekintzak			
1. adierazlea: Gauzatutako ekintzen kopurua	3	3	3
5. dirulaguntza lerroa: APD Elkarteari laneko segurtasun eta osasunari buruz sentikortzeko eta ezagutza sortzeko jardunaldiak egin ditzan			
1. organoa: Plangintza Zuzendariorde			
1. programa: Enpresariak sentsibilizatzeko jardunaldiak diruz laguntzea	2023	2024	2025
1. helburua: Enpresaburuak LSO inguruan sentsibilizatzea eta prestatzea			
1. ekintza: Ezagutza eta sentsibilizazioa sortzeko ekitaldiak antolatzea			
1. adierazlea: Lanaldi kopurua	3	3	3
6. diru-laguntza lerroa:: Langile autonomoen prestakuntza laneko segurtasun eta osasunaren arloan			
1. organoa: Zuzendariorde Teknikoa			
1. programa: Langile autonomoei prestakuntza emateko diru-laguntza	2023	2024	2025
1. helburua: Langile autonomoei laneko arriskuak prebenitzeko eta laneko osasuna sustatzeko gaitasuna helaraztea			
1. ekintza: Arauen arloko prestakuntza-ekintzak diruz laguntzea			
1. adierazlea: Gauzatutako ekintzen kopurua	5	5	5
2. adierazlea: Ekintzan parte hartzen duten pertsonen kopurua	100	100	100

2 helburu estrategikoa: Laneko segurtasunaren eta osasunaren arloan diharduten eragileen parte-hartzea eta haien arteko lankidetzak			
1. dirulaguntza lerroa: EAEn esparruan legez eraturako enpresa-elkarteei, baldin eta OSALANen Kontseiluan eta Batzordeetan parte hartzeagatik ordezkartzarik handiena badute.			
1. organoa: Zuzendaritza Nagusia			
1. programa: EAEn esparruan legez eraturako enpresa-elkarteentzako dirulaguntzak, baldin eta OSALANen Kontseiluan eta Batzordeetan parte hartzeagatik ordezkartzarik handiena badute.	2023	2024	2025
1. helburua: Gizarte-eragileei LAP arloko politika globalean parte hartzeko aukera ematea, Osalaneko Kontseilu Nagusiaren bitartez			
1. ekintza: Diruz laguntzea eragileen parte hartzea Osalaneko Kontseilu Nagusian			
1. adierazlea: Osalaneko Kontseilu Nagusiaren bilera-kopurua	4	4	4
2. adierazlea: Kudeaketa Planaren jarraipen bilera-kopurua	2	2	2
3. adierazlea: Prestakuntza Batzordearen jarraipen-bileren kopurua	4	4	4
2. dirulaguntza lerroa: Erakunde sindikalen finantzazioa, OSALAN-Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundearen Kontseilu eta Batzordeetan ordezkartza handiena daukatenen hautes-ordezkartzaren hautes-ordezkartzan duten benetako partaidetzaren araberakoa			
1. organoa: Zuzendaritza Nagusia			
1. programa: Erakunde sindikalen finantzazioa, OSALAN-Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundearen Kontseilu eta Batzordeetan ordezkartza handiena daukatenen hautes-ordezkartzaren hautes-ordezkartzan duten benetako partaidetzaren araberakoa	2023	2024	2025
1. helburua: Gizarte-eragileei LAP arloko politika globalean parte hartzeko aukera ematea, Osalaneko Kontseilu Nagusiaren bitartez			
1. ekintza: Diruz laguntzea eragileen parte hartzea Osalaneko Kontseilu Nagusian			

1. adierazlea: Osalaneko Kontseilu Nagusiaren bilera-kopurua	4	4	4
2. adierazlea: Kudeaketa Planaren jarraipen bilera-kopurua	2	2	2
3. adierazlea: Prestakuntza Batzordearen jarraipen-bileren kopurua	4	4	4
3. dirulaguntza lerroa: Euskadiko kooperatibei, OSALANeko Kontseiluan eta batzordeetan parte hartzeagatik			
1. organoa: Zuzendaritza Nagusia			
1. programa: Dirulaguntza Euskadiko kooperatibei, OSALANeko Kontseiluan eta batzordeetan parte hartzeagatik	2023	2024	2025
1. helburua: Gizarte-eragileei LAP arloko politika globalean parte hartzeko aukera ematea, Osalaneko Kontseilu Nagusiaren bitartez			
1. ekintza: Diruz laguntzea eragileen parte hartzea Osalaneko Kontseilu Nagusian			
1. adierazlea: Osalaneko Kontseilu Nagusiaren bilera-kopurua	4	4	4
2. adierazlea: Kudeaketa Planaren jarraipen bilera-kopurua	2	2	2
3. adierazlea: Prestakuntza Batzordearen jarraipen-bileren kopurua	4	4	4
4. dirulaguntza lerroa: Laneko segurtasun eta osasunerako europar agentziari			
1. organoa: Zuzendaritza Nagusia			
1. programa: Laneko segurtasun eta osasunerako europar agentziari dirulaguntza ematea	2023	2024	2025
1. helburua: Laneko Segurtasun eta Osasunerako Europako Agentziaren behin betiko egoitza ezarri arte Euskadin jarraituko duela bermatzea			
1. ekintza: Laneko Segurtasunerako eta Osasunerako Europako Agentzia diruz laguntzea, Bilbon duen behin-behineko egoitzako gastuak ordaintzea			

3 helburu estrategikoa: Laneko arriskuen prebentzioaren aldeko kultura sustatzea			
1. dirulaguntza lerroa: Azti Fundazioari, Euskadiko elikagaien eta zuraren balio-katerako Laneko Segurtasun eta Osasunaren Estrategia Sektoriala bultzatu eta garatzeko			
1. organoa: Zuzendariordetza Teknikoa			
1. programa: Dirulaguntza AZTI fundazioari, laneko arriskuen prebentzioaren arloko ikerketa-proiektuak garatzeko	2023	2024	2025
1. helburua: Lehen sektorean laneko arriskuen prebentzioaren aldeko kultura sustatzea, bereziki kaltebera den sektore horretara bideratutako berariazko proiektuen bidez			
1. ekintza: Lehen sektoreko proiektuak diruz laguntzea			
1. adierazlea: Egindako kanpainen kopurua	2	2	2
2. adierazlea: Bisitatutako enpresen kopurua	40	40	40
2. dirulaguntza lerroa: Siderurgia Integraleko Langileen Fundazioari, Hezkuntzan LAP arloko prestakuntza sustatzeko (ADI proiektua)			
1. organoa: Zuzendariordetza Teknikoa			
1. programa: Diru-laguntza Siderurgia Integraleko Langileen Fundazioari, Hezkuntzan LAP arloko prestakuntza sustatzeko (ADI proiektua)	2023	2024	2025
1. helburua: Lanbide Heziketako ikasleen artean laneko arriskuen prebentzioaren aldeko kultura sustatzea eta prebentzioaren garrantziaren inguruan sentsibilizatzea, haiek lan-merkatuan sartu aurretik			
1. ekintza: Informazio- eta sentsibilizazio-ekintzak diruz laguntzea			
1. adierazlea: ADI proiektuan prestatutako LHko ikasle-kopurua	300	300	300

3. diru-laguntza lerroa: ESMko kideei, ETEetako prebentzio-kulturarako euskal behatokiaren jarraipen-batzordean onartutako ekintzen arabera			
1. organoa: Zuzendaritza Nagusia			
1. programa: ETEetan prebentzio-kultura sustatzeko diru-laguntza	2023	2024	2025
1. helburua: Laneko segurtasuna eta osasuna sustatzea			
1. ekintza: Jarraipen Batzordean onartutako ekintzak			
1. adierazlea: Gauzatutako ekintzen kopurua	35	35	35
4. diru-laguntza lerroa: Laneko arriskuen prebentzioa enpresaren kudeaketa-sisteman integratzeko jardunbide egokien saria			
1. organoa: Zuzendaritza Nagusia			
1. programa: ETEetan prebentzio-kultura sustatzeko diru-laguntza	2023	2024	2025
1. helburua: Jardunbide egokien eta benetako integrazioaren adibideak eskaintzea, prebentzioa enpresaren kudeaketa-sisteman behar bezala txertatzen dela ikusarazteko			
1. ekintza: Saria ematea			

II. ERANSKINA: ARDATZ ESTRATEGIKOAK ETA DIRULAGUNTZA LERROAK: Helburu d(ir)en sektorea(k) eta dirulaguntzak emateko prozedura

1. helburu estrategikoa: Laneko Segurtasun eta Osasunari buruzko jakintza sortu eta zabaltzea	
1. dirulaguntza lerroa: Prebentzioko ordezkarien prestakuntza	
1. organoa: Zuzendariordetza Teknikoa	
1. programa: Prebentzioko ordezkarien oinarrizko Prestakuntza emateko dirulaguntza	
Prestakuntza jasoko dutenak	<ul style="list-style-type: none"> • Prestakuntza-zentroak, publikoak nahiz pribatuak izan, sindikatuak eta prebentzio-zerbitzuak –zerbitzu horiek hitzartuta dituzten enpresetako prebentzioko ordezkariak-, baldin eta egoitza Euskal Autonomia Erkidegoan badute.
Dirulaguntza emateko prozedura	<ul style="list-style-type: none"> • Erakundeko teknikariek aurkeztutako eskabideei buruz egindako txostenak ikusi dira. • Osalaneko zuzendari nagusiaren ebazpena
2. dirulaguntza lerroa: LAP arloko ikerketa-proiektuak	
1. organoa: Plangintza Zuzendariordetza	
1. programa: LAP arloko ikerketa-proiektuetarako dirulaguntza	
Prestakuntza jasoko dutenak	<ul style="list-style-type: none"> • Pertsona fisikoak edo juridikoak, unibertsitate publikoak edo pribatuak, unibertsitateak, ikerketa-zentroak, zientzia-elkarteak, administrazio publikoak, prebentzio-zerbitzuak eta beste erakunde batzuk, betiere Euskal Autonomia Erkidegoan kokatuta badaude.
Dirulaguntza emateko prozedura	<ul style="list-style-type: none"> • Ebaluazio-batzorde batek eskariak aztertzea • Osalaneko zuzendari nagusiaren ebazpena
3. dirulaguntza lerroa: EHU/UPVri. Laneko arriskuen prebentzioari buruzko masterra	
1. organoa: Zuzendariordetza Teknikoa	
1. programa: UPV/EHUren LAP arloko masterrean kanpoko irakasleen eskutik prestakuntza jasotzeko dirulaguntza	

Prestakuntza jasoko dutenak	<ul style="list-style-type: none"> Euskal Herriko Unibertsitatea
Dirulaguntza emateko prozedura	<ul style="list-style-type: none"> Zuzendariordetza Teknikoak eskaera aztertzea Osalaneko zuzendari nagusiaren ebazpena
2. organoa: Plangintza Zuzendariordetza	
1. programa: UPV/EHUrentzako diru-laguntza laneko medikuntzako katedra sortzeko	
Prestakuntza jasoko dutenak	<ul style="list-style-type: none"> Euskal Herriko Unibertsitatea
Dirulaguntza emateko prozedura	<ul style="list-style-type: none"> Osalaneko zuzendari nagusiaren ebazpena
4. dirulaguntza lerroa: SEA-Arabako Enpresa elkarteari Osasuna sustatzeko Programarako dirulaguntza	
1. organoa: Plangintza Zuzendariordetza	
1. programa: Osasuna sustatzeko programarako dirulaguntza	
Prestakuntza jasoko dutenak	<ul style="list-style-type: none"> Arabako enpresak
Dirulaguntza emateko prozedura	<ul style="list-style-type: none"> Eskaera aztertzea Osalaneko zuzendari nagusiaren ebazpena
5. dirulaguntza lerroa: APD Elkarteari laneko segurtasun eta osasunari buruz sentikortzeko eta ezagutza sortzeko jardunaldiak egin ditzan	
1. organoa: Plangintza Zuzendariordetza	
1. programa: Enpresariak sentsibilizatzeko jardunaldiak diruz laguntzea	
Prestakuntza jasoko dutenak	<ul style="list-style-type: none"> EAEko enpresaburuak
Dirulaguntza emateko prozedura	<ul style="list-style-type: none"> Eskaera aztertzea Osalaneko zuzendari nagusiaren ebazpena
6. diru-laguntza lerroa: Langile autonomoen prestakuntza laneko segurtasun eta osasunaren arloan	
1. organoa: Zuzendariordetza Teknikoa	
1. programa: Langile autonomoei prestakuntza emateko dirulaguntza	
Prestakuntza jasoko dutenak	<ul style="list-style-type: none"> Langile autonomoak
Dirulaguntza emateko prozedura	<ul style="list-style-type: none"> Eskaera aztertzea Osalaneko zuzendari nagusiaren ebazpena
2. helburu estrategikoa: Laneko segurtasunaren eta osasunaren arloan diharduten eragileen parte-hartzea eta haien arteko lankidetzak	
1. dirulaguntza lerroa: EAEen legez osatutako enpresa Elkartearen finantzazioa, OSALANen Kontseilu eta Batzordeetan benetako parte hartzeagatik ordezkaritza handieneko erakundetzat jotzen direnak hain justu, martxoaren 24ko 1/ 1995 Errege Dekretu Legegilearen 6. Xedapen Gehigarriaren arabera	

1. organoa: Zuzendaritza Nagusia	
1. programa: EAEn legez osatutako enpresa Elkarleen finantzazioa, OSALANen Kontseilu eta Batzordeetan benetako parte hartzeagatik ordezkariak handieneko erakundetzat jotzen direnak hain justu, martxoaren 24ko 1/ 1995 Errege Dekretu Legegilearen 6. Xedapen Gehigarriaren arabera	
Prestakuntza jasoko dutenak	<ul style="list-style-type: none"> • EAEn legez eraturako ordezkagarritasun handieneko enpresa-elkarteak
Dirulaguntza emateko prozedura	<ul style="list-style-type: none"> • Eskiera aztertzea • Osalaneko zuzendari nagusiaren ebazpena
2. dirulaguntza lerroa: Erakunde sindikalen finantzazioa, OSALAN-Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundearen Kontseilu eta Batzordeetan ordezkariak handiena daukatenen hautes-ordezkaritzaren hautes-ordezkaritzan duten benetako partaidetzaren arabera	
1. organoa: Zuzendaritza Nagusia	
1. programa: Erakunde sindikalen finantzazioa, OSALAN-Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundearen Kontseilu eta Batzordeetan ordezkariak handiena daukatenen hautes-ordezkaritzaren hautes-ordezkaritzan duten benetako partaidetzaren arabera	
Prestakuntza jasoko dutenak:	<ul style="list-style-type: none"> • Ordezkaritasun handieneko sindikatuak
Dirulaguntza emateko prozedura	<ul style="list-style-type: none"> • Eskiera aztertzea • Osalaneko zuzendari nagusiaren ebazpena
3. dirulaguntza lerroa: Euskadiko kooperatibei, OSALANeko Kontseiluan eta batzordeetan parte hartzeagatik	
1. organoa: Zuzendaritza Nagusia	
1. programa: Dirulaguntza kooperatibei, OSALANeko Kontseiluan eta batzordeetan parte hartzeagatik	
Prestakuntza jasoko dutenak:	<ul style="list-style-type: none"> • Euskadiko kooperatibak
Dirulaguntza emateko prozedura	<ul style="list-style-type: none"> • Eskiera aztertzea • Osalaneko zuzendari nagusiaren ebazpena
4. dirulaguntza lerroa: Laneko segurtasun eta osasunerako europar agentziari	
1. organoa: Zuzendaritza Nagusia	
1. programa: Laneko segurtasun eta osasunerako europar agentziari dirulaguntza ematea	
Prestakuntza jasoko dutenak	<ul style="list-style-type: none"> • Sektore publikoa
Dirulaguntza emateko prozedura	<ul style="list-style-type: none"> • Eskiera aztertzea • Osalaneko zuzendari nagusiaren ebazpena

3. helburu estrategikoa: Laneko arriskuen prebentzioaren aldeko kultura sustatzea	
1. dirulaguntza lerroa: Azti Fundazioari, Euskadiko elikagaien eta zuraren balio-katerako Laneko Segurtasun eta Osasunaren Estrategia Sektoriala bultzatu eta garatzeko	
1. organoa: Zuzendariordetza Teknikoa	
1. programa: Dirulaguntza AZTI fundazioari, laneko arriskuen prebentzioaren arloko ikerketa-proiektuak garatzeko	
Prestakuntza jasoko dutenak	<ul style="list-style-type: none"> • Lehenengo sektorea
Dirulaguntza emateko prozedura	<ul style="list-style-type: none"> • Zuzendariordetza Teknikoak eskaera aztertzea • Osalaneko zuzendari nagusiaren ebazpena
2. dirulaguntza lerroa: Siderurgia Integraleko Langileen Fundazioari, Hezkuntzan LAP arloko prestakuntza sustatzeko (ADI proiektua)	
1. organoa: Zuzendariordetza Teknikoa	
1. programa: Dirulaguntza Siderurgia Integraleko Langileen Fundazioari, Hezkuntzan LAP arloko prestakuntza sustatzeko (ADI proiektua)	
Prestakuntza jasoko dutenak	<ul style="list-style-type: none"> • Lanbide Heziketa
Dirulaguntza emateko prozedura	<ul style="list-style-type: none"> • Zuzendariordetza Teknikoak eskaera aztertzea • Osalaneko zuzendari nagusiaren ebazpena
3. diru-laguntza lerroa: ESMko kideei, ETEetako prebentzio-kulturarako euskal behatokiaren jarraipen-batzordean onartutako ekintzen arabera	
1. organoa: Zuzendaritza Nagusia	
Programa 1: ETEetan prebentzio-kultura sustatzeko dirulaguntza	
Prestakuntza jasoko dutenak	<ul style="list-style-type: none"> • Enpresa-eta sindikatu-elkarteak
Dirulaguntza emateko prozedura	<ul style="list-style-type: none"> • Zuzendariordetza Teknikoak eskaera aztertzea • Osalaneko zuzendari nagusiaren ebazpena
4. diru-laguntza lerroa: Laneko arriskuen prebentzioa enpresaren kudeaketa-sisteman integratzeko jardunbide egokien saria	
1. organoa: Zuzendaritza Nagusia	
Programa 1: ETEetan prebentzio-kultura sustatzeko dirulaguntza	
Prestakuntza jasoko dutenak	<ul style="list-style-type: none"> • EAEko enpresaburuak
Dirulaguntza emateko prozedura	<ul style="list-style-type: none"> • Hautagaien balorazioa • Osalaneko zuzendari nagusiaren ebazpena